

GOZATU Aste Santuan!!



<https://www.eibar.eus/eu/kultura/albisteak/gozatu-aste-santuan>



EIBARKO UDALA

GOZATU
irakurtzen

Kaixo, familia

Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzuak eta **Juan San Martín Udal Liburutegiak** opor garaian familian euskaraz gozatzeko moduko jolasen eta liburuen bilduma prestatu dugu.

Opor garaian umeekin egoteko denbora gehiago dugunez, euskara indartzeko ere une egokia da. Horretarako gomendioak dituzu bideo honetan

<https://labur.eus/PxGVI>

Oporretan irakurri eta egin jolas elkarrekin!

GOZATU
jolasen

El **Servicio de Euskera** y la **Biblioteca Municipal Juan San Martín** os ofrecemos una selección de juegos y libros en euskera para disfrutar en familia durante las vacaciones.

Las vacaciones también son una buena época para ayudar a nuestros hijos e hijas a reforzar el euskera mediante la diversión.

Encontrarás recomendaciones válidas en este vídeo

<https://labur.eus/BPuVf>

¡Las vacaciones son una buena ocasión para leer y jugar juntos!

¿ZER IRAKURRI?

+
5 urte




1880tik irekia / Pietro Gottuso

Kalandraka, 2020

Narrazio grafiko bat, 140 urtetik gorako denboraren joana adierazten duena, liburu-denda bat lekuko dela, gertakari historikoak, teknologiaren bilakaera eta aldaketa soziala nabarmenduz.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Tigrea amesgaiztoaren kontra / Emily Tetri

Asteberri, 2020

Tigrea zorioneko umea da: munstro bat dauka ohe azpian bizitzen. Gauero, Tigrea eta Munstroa jolasean aritzen dira argiak itzaltzeko ordua arte. Jakina, Munstroa ez da sekula Tigrea ikarutzen ahalegindu, lagunek ez baitute halakorik egiten. Baina Munstroak norbait ikaratzeko premia du... munstro bat baita, azken finean. Beraz, Tigrea lo dagoen bitartean, Munstroak haren amesgaizto guztiak uxatzen ditu. Bere lagunari esker, Tigreak amets goxoak besterik ez ditu. Baina ilunpean zain hortxe badago amesgaizto hain handi eta gaizto bat, non Munstroa ez baita gai harekin bakarrik borrokatzeko.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




Ez dakit marrazten / Eider Eibar

Kalandraka, 2020

Zeure buruari behin baino gehiagotan esango zenion, beharbada, "... ez dakit marrazten!". Horixe bera gertatzen zaio istorio honetako protagonistari. Hartu arkatza eskuan eta hasi jolasean... ikusiko duzu zer gertatzen den!

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Erdi Arora bidaia / Artur Laperla

Bang, 2020

Goizean, Superpatatak ezusteko desatsegin bat izan du: gihartsu izateari utzi dio! Kortex laborategira joan da, eta Arrosa irakasleak azaldu dio izpi molekularren eraginak denbora batean bakarrik irauten duela eta gero desagertu egiten dela. Ez dio axola, ordea, irakasleak eginkizun bat baitu Superpatatarentzat. Izan ere, Katioi irakasleak denboraren ataria zeharkatu zuen duela egun batzuk, eta oraindik ez da itzuli. Irakaslea aurkitzeko, Superpatatak Erdi Arora bidaiatuko du!

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

¿ZER IRAKURRI?

+
5 urte



Galdu dena azaldu dadila! / Garazi Kamio Anduaga Ikaselkar, 202

Galdu dena azaldu dadila! ipuinaren kasuan, Garazi Kamiok eta Julen Ribasek hitzak eta irudiak elkartu dituzte helduak galdu zaizkien lau umeren pasadizoak kontatzeko. Eskutik ondo heldu eta adi egoteko esan dieten arren, hirian desagertu dira Olaiaren ama, Ekhiren aita, Lukaren amonak eta Miaren osaba. A zer despistatu-kuadrilla! Eta orain zer? Nondik hasi bila?

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Wandari hitzak trabatu zaizkio / Lucy Rowland Ibaizabal, 2020

Wanda sorgin txikiari asko gustatzen zaio sorginkerien eskolara joatea, baina oso lotsatia denez, asko kostatzen zaio hitz egitea. Lea izeneko ikasle berri bat gelara iritsiko da eta oso lagun egingo dira biak. Egun batean, irakasleak magia txapelketa bat egitea proposatuko die. Animaliak sortu beharko dituzte txapelketan. Lea eta Luka lehen postua lortzeko lehian dabilta. Txandaka, gero eta animalia beldurgarriagoak sorrarazten dituzte: katu bat, txakur bat, lehoi bat, herensuge bat... Eskerrak Wanda hor dabilen Lea lagunari laguntzeko.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Bastet / Irati Merino , Peio Lopez-Iturri.

Denonartean, 2020

Bastet Nilo ibaiaren ertzetan bizi den neskabila da. Haren bizipoza ura lapurtu nahi duten arrotzek zapuztuko dute, eta bere lagunekin batera, denona den ura berreskuratzen abiatuko da. Guztiona dena denon artean zaindu eta babestu behar dugulako.

Erabilgarritasuna / Disponibilidad



Munstroek ere gela txukuntzen dute! /Jessica Martinello

Ttarttalo, 2020

Munstroek ere gela txukundu behar dute! Ez didazu sinisten? Ireki liburu hau eta ikusiko duzu zer gertatzen zaion munstro zabar txiki bati... Ez dituzu zure jostailuak berriro botata utziko!

Erabilgarritasuna / Disponibilidad

¿ZER IRAKURRI?

+
8 urte



Neskaotsok ilerik ez balu? / Alaine Agirre

Elkar, 2020

Neskaotsori barre egin diote laminek, gorputz iletsua duela-eta. Lotsaturik, berak ere publizitatean bezalako gorputz ilegabea izatea amestuko du, eta bide guzietatik saiatuko da depilatzen: aitzur, krema eta laser.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




Utikan, birusa! / Ana Jaka, Iosu Mitxelena

Elkar, 2020

Koronabirusak jo gaituen garai honetan girotuta dago istorio hau. Lehenengo ipuinak “Nahigabeko oporrak” orain hilabeteko itxialdiaz hitz egiten digu eta bigarrenak berriz, “Lagunak beti lagun”, uda ondorengo denbora honetan dago girotuta. Noa eta Lea ahizpek, garai berezi honetan ere, beti erakutsi ohi duten laguntasuna, bizi-poza eta bihurrikerietarako joera helaraziko diete haurrei ipuin honetan.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Ez apuratu / Mujika Iraola

Erein, 2020

Amonak ez daki zer diren dilistak, lentejak esaten du; ilbeltza deitzen dio urtarrilari; ondo zegoenean, eskribitu egiten zituen dendan erosi behar zituen gauzak paper-mutur batean, eta ulertu ez baina entenditu egiten zituen nire arazoak.

Amonarekin abestu ezin da egin, baina kantatzea asko gustatzen zaio: batez ere, Bautista Basterretxe delako tipo baten abesti bat. Eta gaixo ikusten banau, inoiz ez dit galdetzen sukarrik dudan. «Kalenturarik baduzu?», esaten dit. Eta baietz esaten badiot, kalentura altua dudala, orduan esaten dit:

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Siberiako neskatala ausarta / Iñaki Zubeldia

Ibaizabal, 2020

Siberian bizi den neskatala batek, naturarekiko eta ingurugiroarekiko kontzientzia itzelak dituen, amona salbatu beharko du, horretarako benetako heroi bihurtuz.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

¿ZER IRAKURRI?

+
10 urte



Kokonutt / Miren Amuriza

Elkar, 2020

Istorio txundigarri horren protagonista zazpi urte baino gehiago eta hamaika baino gutxiago dituen Doretta da. Dorettak oso argi dauzka ideiak: egunen batean, famatua izango da. Bereizen artistikoa pentsatuta dauka: Kokonutt

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)




Itsas azpiko sekretua / Lur Gallastegi

Ibaizabal, 2020

Itsas azpiak hainbat sekretu ezkutatzen ditu. Baina beti ez gara horiek argitzeko gai. Askotan, gure herriaren historiako pasarteak ere badira ur artean. Intzak eta haren lagunek uda ahaztezina igaroko dute Donostiako Kontxako badian biziko dituzten abenturei esker.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Donostian elefanteak ikusi zirenekoa / Anjel Lertxundi

Erein, 2020

Alkateak minez lehertu beharrean zeukan burua. Bulegoko leihoa ireki eta bertako terrazara irten zen. Alkateak ezin zuen sinetsi begien bistan zeukana: Alderdi Eder, hiriko parkerik ederrenetako bat, neurri, mota eta piura guztietako elefantez beterik zegoen. Begiak igurtzi zituen. Ikusi berri zituenak elefanteak ziren, ez zeukan inolako zalantzarik. Alkatea ez zegoen edanda, oso pertsona serioa zen, gutxitan tronpatzen zen, osasun ona zeukan. Orduan? Zer gertatzen ari zen bere kargu zeukan hiri maitean?

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)



Etxegabetuak / Nerea Arrien

Erein, 2020

«Etxea» bueltatzeko leku bat izan da gizakiontzat gizaldiz gizaldi. Pandemiak, ordea, bestelako adierak eman dizkio hitz horri. Etxegabetuak liburuan, honi buruzko gogoeta bat bultzatzen da, kontraesan baten bidez: jende asko etxerarazi zuten; baina beste batzuk, ordea, etxegabetu. Etxegabetu horietako bat dugu Libe, eta berak kontatuko digu, lehen pertsonan, bizi izandakoa.

[Erabilgarritasuna / Disponibilidad](#)

¿ZER IRAKURRI?



Irakurketa gomendio gehiago:
[Euskarazko produktuen katalogoan](#)



Eta irakurri ondoren... LiburuTuber izateko prest?



[Lehiaketaren oinarriak](#)

Biblioteca Juan San Martin Liburutegia
Bista Eder, 10
20600 Eibar (Gipuzkoa)
tel: 943 708 437
email: liburutegia@eibar.eus



GOZATU jolasan



KUKURUKU

Elkarrizketa erako kanta-jolasa



Nola jolastu?

Ume txikiekin (2-3 urte), altzoan hartu eta umea gora eta behera erabili, kantatu bitartean.

Handiagoekin (5 urtetik aurrera), umeak bi taldetan banatu eta elkarrizketa egin dezakete, parez pare jarrita. Elkarrizketa hori antzeztu egingo dute, keinuak eginez, eta gora eta behera mugi daitezke (orain zutik, orain makurtuta; hizketan daudenean, zutik).

- Kukuruku!
- Zer duzu?
- Buruan min!
- Zeinek egin?
- Azeriak
- Azeria non?
- Errotapian
- Zertan?
- Garia biltzen
- Garia zertarako?
- Oiloari emateko
- Oiloa zertarako?
- Arrautzak jartzeko
- Arrautzak zertarako?
- Frijiduta jateko!



<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kukuruku>

DON DON KIKILIKON

Zotz egiteko antzinako abestia



4 urte +



Don Don
Kilikikon
Hortxe dator
Don Ramon
Saltsa pika
tortolika
Patinean
korrika!

Nola jolastu?

1. Asko baldin badira, umeek biribil bat osatu-ko dute (zutik ala lurrean eserita) eta ume bat erdian jarriko da. Umeak gutxi baldin badira, berriz, nahikoa da elkarren ondoan jartzea, eta beste umea haien parean, aurrez aurre.

Iturria

Antzinako kanta da. Guk Arrasateko Begoña Arregiri jasotakoa hartu dugu oinarri moduan, baina buketak berri usaina daukela iruditzen zaigu: jatorrizko bertsioan ez zela patinik agertuko, alegia. Kanta honen hainbat aldaera daude.

Beste aukera bat Antzuolan jasotako aldaera hau erabiltzea da:

*Din-don,
Trikilikon
Saltsa fika, tortolika
Deuson
Aittona Martzelon
krisk eta krask eta
Kaxkamelon
Hara bera tronpeta
hara kirikon*



<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/don-don-kilikikon>

59

ZAPIAREN JOLASA

Zapi batekin egiten den harrapaketa jolasa



5 urte +

Zer behar da?

Zapi bat eta jolasteko leku zabal bat.

Nola jolastu?

1. Bi marra edo marka marraztuko ditugu lurrean. Marren arteko distantzia (adibidez, 8 pauso) izango da jolaslekua. Erdibidean (adibidez, bi aldeetatik 4 pausora) ipiniko da zapiduna.
2. Zapia eutsiko duena izendatu ostean, gainerako umeak bi taldetan banatuko dira. Talde bietako kideen kopurua bera izango da, eta jokalaria bakoitzak zenbaki bat izango du: 1, 2, 3...

3. Talde bateko kideak marra/marka baten atzean jarriko dira eta besteak parean, beste marraren atzean. Zapidunak zenbaki bat esango du, eta zenbaki hori duten bi jokalariai talde bakoitzetik bat zapiaren bila abiatuko dira.
4. Helburua: zapia hartu, eta bueltan taldekideei eramatea. Bidean doala beste taldekoak harrapatuz gero, zapia bestearentzat izango da. Zapia lortzen ez duena jolasetik kanpo geratuko da, eta bere zenbakia beste taldekide batek hartuko du.
5. Taldeetako bat jokalaria gabe gertatzean amaituko da jolasa. Beste aukera bat: inor ez kanporatzea, eta puntu kopuru jakin batera iristean bukatzea jolasa.

Jolasteko modu alternatiboak

- Zenbakiak esan beharrean, batuketak eta kenketak esatea. Adibidez: 12 ken 8 esanez gero, 4 zenbakia dutenak irtengo dira.



- Zenbakiak banaka esan beharrean, binaka eta hirunaka ere esatea. Binaka esanez gero, zenbaki horiek dituzten bi pertsonak bata bestearen gainean, bizkarrera igota, joango dira zapi bila. Hiru zenbaki esanez gero, berriz, "erreginaren aulkia"-n: bik elkarri eskuak eman, eta hirugarrena beso gainean eserita eramango dute.

Iturria

Elgoibarren jaso dugu; han "banderetara" jolastea esaten zioten.



<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/banderetara-zapiaren-jolasa>

12

POTXOLOKA

Intxaurrak edo hurrak 'potxolo' edo zulo batera sartzea



Zer behar da?

Klariona, lurrean marra egiteko. Eta borobilak diren objektu txikiak (intxaurrak, hurrak, kanikak, gerezi hezurak...) eta zulo bat: "potxoloa". Txapela ere erabil daiteke zulo moduan (ikus argazkian).

Nola jolastu?


Potxoloka jolasteko hainbat modu daude. Hona hemen sinpleenetako bat:

Beste jolas bat, pixka bat konplexuagoa, ume handixeagoentzat:

1. Txapel/txano bat erabil dezakegu "potxolo" moduan; lurrean jarriko dugu, eta hurrak bertara jaurti. Zaku forma eman, hurrak errazago sar daitezten.
2. Jokalari denek hur kopuru bera izango dute hasieran: adibidez 15 hur. Nahi beste jokalarik parte har dezakete.

3. Marra bat marraztu, potxolotik 2-3 pausora. Txandaka jaurtiko dituzte hurrak jokalariek handik potxolora (jaurtialdi bakoitzerako hustu egingo da). Hurrak esku bakarrekin jaurti behar dira, eskukada batean. Ez da beti hur kopuru bera jaurtiko.

Hauxe da araua: potxolora pareka sartu behar dira hurrak (2 edo 4); bestela, jokalariek bi hur galduko dituzte (potxolora sartu behar dute). Lehenengo,



18

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/potxoloka>

POTXOLOKA



4 urte +

bi hur jaurtiko dituzte jokalariek. Gero hiru, ondoren lau... Bostera iristean, berriro birekin hasiko dira. Jaurti aurretik, abisua emango dute:

Bi-bi! (2 hur jaurti eta 2 sartu behar dira potxoloan)

Hiru-hiru! (3 hur jaurti eta 2 sartu)

Lau-lau! (4 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

Bost-bost! (5 hur jaurti eta 2 edo 4 sartu)

4. Jaurti beharreko hur kopurua ez duen jokalaria erretiratu egingo da. Jokalari bakarra geratzen denean amaituko da jolasa: hura da irabazlea, eta baita hur gehien dituen ere! Aukera bat: hurrak zuritu eta denen artean jatea.



Iturria

Hainbat lekukok eman digute jolas honen berri, besteak beste Eskoriatzan, Eibarren, Bergaran, Antzuolan eta Oñatin. Bereziki Elorrioko Pantxi Treviñoren azalpenak hartu ditugu aintzat jolas hau proposatzeko. Intxaur eta hur sasoiko jolasa da: umeek "potxolo" bat egiten/bilatzen zuten, eta hara jaurtitzen zituzten. Jolas honek hainbat izen ditu, herrian herri desberdinak: *potolo*, *potxola*, *txolo*, *potxi*, *botxo*, *potxo*, *txitxilinpotxo*, *txikotxa*... Eskoriatzan *potxolo* jaso dugu, *potxoloka* jolastea. Intxaurrak eta hurrak kaniken aurrekariak dira.

19



PUNTA ALA BURU?

Koloretako burudun orratzak eskuan gordetzea




6 urte +

Zer behar da?

Koloretako burua duten orratzak. Orratzen orde egurrezko txotzak erabiliz gero (punta bat margotuta), txikiagoentzat ere egokia da (3 urte-tik aurrera).

Nola jolastu?

1. Umeak binaka jarriko dira. Ume bakoitzak orratz kopuru bera izango du (adibidez 5).
2. Umeetako batek orratz bat gordeko du eskuan, ukabila itxita, eta besteak orratza nola dagoen asmatu behar du: gora begira ala behera begira (punta ala buru).
3. "Punta ala buru?", galdetuko du ukabila itxita duenak. Eta asmatu behar duenak bietako bat esango du: adibidez, "Punta!". Eskua irekitzean orratzak punta gora begira baldin badauka, asmatu du. Berarentzat da orratza.



4. Bi jokalarietako bat orratzik gabe geratzen denean bukatuko da jolasak.

Posible da beste jolas batzuk egitea ere: orratza bi eskuetako zeinetan dagoen asmatu behar izatea. Edo aldiko orratz bat baino gehiago ezkutatu, eta zenbat gorde dituzten asmatzea edo orratz horiek "punta ala buru" dau-den asmatzea.

Iturria

Elgoibarko Miren Vallejoren azalpenetan oinarritu gara. Garai batean ohikoa zen arropa etxean jostea, eta etxe guztietan izaten ziren orratzak. Koloretako burua zutenak erakargarriak ziren umeentzat, eta jolasak asmatzeko bidea ematen zuten.

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/punta-ala-buru>

22

TXINGOAN JOLASEAN

Txingo, *txingoan* edo *txingoka* ibiltzea: oin bakar baten gainean saltoka ibiltzea, bestea airean edukita. Hiztegietan datozen sinominoak (Labayru, UZEL eta Harluxet): *txangika*, *xingilka*, *oinka-oinka*, *kisketea*, *intxintxorrea*, *trinkitin*, *xingilika* eta *xingili*.

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu **Ahotsak.eus** proiektuan. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurrian, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:



- **Harri-harrika:** Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoan joanda batu behar da harritxo, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marrazkiak oinarekin zapaldu. Lurrian marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi

hankak jartzen dira lurrian: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atseden-lekua egon daiteke.

- **Txingor-gainean edo txindurrika:**

Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak emanez eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrarik zapaldu. Lurrian marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atseden-lekua dago, buelta ematen den tokian.



Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran *txingoka* edo *txingoan* izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan *harri-harrike* eta *txantxikurke*, Elgoibarren *txingor-gaiñian* (edo *txingorriñian*), Bergaran *txindurrika* eta *txantxirrika*, Eskoriatzan *txantxitxuske*, Antzuolan *txintxurruka*, Arrasaten *losa-losaka* eta *hanka-koskoka*...

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/harri-harrike-edo-txingoka>

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/txingorriñian-edo-txindurrika>

KISKILLA-MISKILLA

Zenbakiekin jolas egiteko kanta



Hiru ta hiru sei
hiru bederatzi
hamar hemeretzi
bat hoge
Kiskilla ta miskilla
hirurogei!



Zer behar da?

Objektu txiki bat: giltzak izan daitezke, pilota bat, kaxatxo bat... Eta leku zabala.

Nola jolastu?

1. Ume denak, bat izan ezik, lurrean eserita jarriko dira, biribil bat osatuz. Zutik dagoenak objektu bat izango du eskuetan.
2. Lurrean eserita dauden haurrek kanta abestuko dute, begiak itxita eta eskuak begien aurrean jarrita. Bitartean, biribiletik kanpora dagoen umea kanpoko aldetik bueltaka ibiliko da, eta abestia amaitu aurretik eskuetan duen objektua lurrean utzi beharko du, umeren baten atzean. Eta bera ere han geratuko da, zutik, objektuaren ondoan.

68

<https://ikasgelan.ahotsak.eus/fitxak/kiskilla-miskilla>

KISKILLA-MISKILLA

4 urte +



Iturria:

Amorebieta-Etxanoko Josebe eta Mila Ibaibarriaga ahizpei jasotako antzinako kanta da, kanta-jolas bihurtua. Aldaera gehiago ere badira. Ramon Maria Azkuek jasotakoan, esaterako, "miskilla eta miskilla" esan beharrean "talo ta bizkaino" esaten da.

Antzinako esaera-kanta hau zenbakiak ikasteko aproposa da, eta ume txikiekin erabiltzen da. Kantatu egin daiteke, beste barik, baina jolasaren bidez errazagoa da umeek kanta ikastea, behin eta berriz errepikatuko delako. Sokasaltorako ere aproposa izan daiteke. Lehenengo, abestia kanta daiteke, eta bukaeran kontatu: 1, 2, 3, 4, 5... saltaginak huts egin arte.

3. Kanta amaitzen denean, ume guztiek begiak irekiko dituzte, eta atzera begiratuko dute, objektuaren bila. Bere atzean objektua ikusten duen umea jaiki egingo da, eta objektua jarri dionaren atzetik hasiko da korrika: harrapatu egin beharko du.
4. Objektua jarri duen umeak egin behar duena: biribilarri bi buelta eman, eta hutsunea geratu den tokian eseri, beste umeak bera harrapatu aurretik. Bitarte horretan beste umeak harrapatzen baldin badu, zutik geratuko da berriro, objektua jartzen. Ez baldin badu harrapatzen, berriz, beste umearen txanda izango da.



69

